

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Emilio Agirrebeitia Lasuen

*Berriz, Bizkaia
(1917-2014)*

Aurkibidea



Biografia



Andikoa auzoko "Arnaia" (Arnaga edo Andikoa) baserrikoa. Sei neba-arreba izan ziren. Sei urte ingururekin auzoko eskolan hasi zen. Gero, hamar urte ingururekin Maristetara joan zen, Durangora. Gerra sasoian trintxerak egiten ibili zen eta Arana Goiri batailoian sartu zen geroago. Santanderren nazionalek harrapatu eta preso egon ostean, frankistekin ibili zen Teruelen. Hiru urte egin zituen etxetik kanpora. Soldadutza amaitu ostean, Bibiano Gaztelurrutia aitaginarrebak zabaldutako forjan hasi zen lanean. 2006an egin zitzaion elkarrizketa, 89 urte zituela, Berrizko antzinako kontuak jasotzeko.

Zintak

BRZ-050

- **Proiektua:** Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gerenabarrena, Maite
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 110 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Gerenabarrena, Maite

Pasarteak

1. Andikoako ikastolan euskaraz

- **Erref:** BRZ-050/002
- **Iraupena:** 0:00:16. **Hasi:** 00:01:53. **Bukatu:** 00:02:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Andikoako ikastolan ibili zen. Bai berak eta bai aurrekoek dena euskaraz ikasten zuten. Esaten zen behin Hormastegi pasatuz gero, gaztelaniaz egin behar zela.

2. "Arnaia" etxearen egitura

- **Erref:** BRZ-050/005
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:08:10. **Bukatu:** 00:08:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Sei neba-arreba ziren: hiru mutil eta hiru neska. Gela bana zuten etxean. Behean asto- eta txahal-korta. Etxeak mehelina zuen, badaezpada, sutea izanez gero ere, alde bat babesteko.

3. Aitak abarkak egiten zituen ganaduaren larruarekin

- **Erref:** BRZ-050/006
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:08:53. **Bukatu:** 00:11:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Etxean ganaduren bat hiltzen zenean, zezina egiten zen. Larrua zabal-zabal eginda jartzen zen, sikatzen, eta gero harekin abarkak egiten zituen aitak. Nola egiten zituen. Abarkak lehortzen baziren, gauean sekula-belarra sartzen zitzairen barruan eta goizerako umelduta egoten ziren. Geroago gomazko abarkak etorri ziren, kotxeen gurplekin egindakoak. "Txapiñuek".

4. Garbitokia Andikoan; "edarra-mutile"

- **Erref:** BRZ-050/009
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:12:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Andikoako garbitokia. "Edarra-mutile". "Txarrue". Eibar inguruko harrobi batetik ekarritako harri-lauzak. Etxerako ura.

5. Gerra sasoian arbia saltzera Bilbora

- **Erref:** BRZ-050/010
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:12:41. **Bukatu:** 00:14:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Ganadua zuten etxean. Etxeko gaiak saltzera Eibarrera, Durangora edo Bilbora joaten ziren. Ilar zakukadak eramaten zituzten Eibarrera. Gerra sasoian gosea zegoen eta naboia (arbia) saltzera joaten zen Bilbora, Durangotik tranbia hartuta.

6. Berrizko eskolak; Andikoako eskola

- **Erref:** BRZ-050/011
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:14:46. **Bukatu:** 00:17:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Andikoako eskola. Sei urte ingururekin hasi zen bertan. Gero Durangora joan zen, maristetara. Berrizko Kontzejua: udaletxea, eskolak, telefonoa eta kartzela. Beste auzo-eskolak geroagokoak dira. Beraiek eskola auzoan bertan zutenez, ez zuten herriko jenderik ezagutzen.

7. Aitaginarrebak martxan jarritako forja

- **Erref:** BRZ-050/015
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:21:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak

Laburpena:

Bere aitaginarrebak, Bibiano Gaztelurrutiak, eskopeta-lantegia zuen Eibarren. Gerra sasoian, bonba batek lantegia apurtu zien eta, orduan, forja jarri zuten Berrizen. Gerraostean Eibarrera itzultzea pentsatzen zuten arren, azkenean bertan geratu ziren. Soldadutzatik etorri zenean, hantxe hasi zen lanean Emilio. Forjan denetarik egiten zuten. Hasieran eskopetentzako piezak asko.

8. Forjako langileak eta soldata; apopiloak

- **Erref:** BRZ-050/018
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:21:58. **Bukatu:** 00:23:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak

Laburpena:

Bera forjan lanean hasi zenean, zazpi langile ziren, denak bertakoak. Gero kanpoko jendea etorri zen eta errentan egoten ziren. Eibarren etxe askotan egoten zen kanpoko jendea, egoera txarrean. Gaur egun 90 langile inguru daude forjan. 1940an 12 pezeta inguru kobratuko zituen.

9. Fondako menua bi pezeta eta erdian

- **Erref:** BRZ-050/020
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:25:21. **Bukatu:** 00:27:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

Berrizko jatetxeak. Bera lanean zebilenean, Fondan bazkaltzen zuten. 2,50 pezeta izaten zen menua. Lehenengo salda eta gero baba gorri platerkada. Sasoi batean kokoa atera zitzaion babarrunari. Orduko kontuak. Julian Urtiaga eta emaztea ziren Fondaren arduradunak.

10. Berrizko limonada fabrika markesarena

- **Erref:** BRZ-050/022
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:27:23. **Bukatu:** 00:28:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Edari-ekoizleak

Laburpena:

Berrizko limonada fabrika. Markesa eta bilbotar batzuk omen ziren jabeak. Berrizen ez zegoen urik eta Larizgoitik hartzen zuen ura markesak.

11. Garai bateko Olakueta: garbitokiak, gasolindegia, denda...

- **Erref:** BRZ-050/025
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:29:54. **Bukatu:** 00:31:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Berrizko garbitokiak. Gasolindegia. Denda. Olakueta nolakoa zen. Ospitalea egon zen "Kaleja"n, baina berak ez zuen ezagutu.

12. Laubidetan gurdi-bidea besterik ez zegoeneko kontuak

- **Erref:** BRZ-050/026
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:31:26. **Bukatu:** 00:32:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Elorrio, Markina, Zaldibar eta Durangorako bidegurutzea dagoen lekuari "Laubideta" esaten zion aititak. Garai batean ez zegoen errepiderik, gurdi-bidea bakarrik eta dena kakatzaz beteta egoten zela esaten zuten. Astoekin errotara joaten zen jendea eta astoak kakatzatik atera ezinda ibiltzen ziren.

13. Andikoako baserriak aberatsagoak; herri-basoak

- **Erref:** BRZ-050/027
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:32:37. **Bukatu:** 00:34:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Aitita Andikoakoa zen. Olakuetako jendea edukitzen zuen morroi. Sasoi hartan goiko baserrietakoak aberatsagoak omen ziren; basoak, abereak... zituzten. Bertako arrazakoei "herri-behiak" esaten zieten. Herri-basoak Udalarenak izaten ziren eta enkantean ateratzen zituzten. Gerora saldu egin ziren baso horietako batzuk.

14. Maiordomoaren eginbeharrak

- **Erref:** BRZ-050/029
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:37:04. **Bukatu:** 00:38:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Etxejabeek Kofradia osatzen zuten eta maiordomo batzuk izendatzen zituzten urte bakoitzerako: Sarriako bat eta Andikoako bat. Maiordomoaren eginbeharrak.

15. Maiorazkoen betebeharrak

- **Erref:** BRZ-050/031
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:39:29. **Bukatu:** 00:43:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Normalean seme edo alaba nagusienari uzten zitzaion baserria oinordetzan. Maiorazkoa gero bikote aberatsaren bila ibiltzen zela esaten zuten, izan ere, anai-arrebei dirua eman behar izaten zien gero. Maiorazkoari jartzen zitzaion beste baldintza bat: anai edo arreba ezkongabea etxean hartzea eta haren mantenuaz arduratzea. Maiorazkoek edo etxe jabeek askotan bizimodu txarra izaten zuten: beti zorrak ordaintzen. Mutilaren etxera ezkontzen zen neska ere sarri hango etxeakoandrea mendean egon behar.

16. Andikoako erromeria; "aramaitakoa"

- **Erref:** BRZ-050/034
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:44:36. **Bukatu:** 00:49:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Garai batean eliza ondoan egiten zen erromeria. Gero auzoetan ere bai. Bera mutikoa zenean Andikoan egiten zen erromeria eta gogoan du hara joaten zela begiratzera. Sakristauaren etxeok taberna antzekoa zuten eta kanpaiak jotzeko ardura ere beraiena zen. "Aramaitakoa" goizean, eguerdian eta gauean jotzen zen. Mutilek "aramaitakoa" oraindik ez jotzeko eskatzen zioten, harekin erromeria bukatu egin zen eta. Mutilak bola-jokoan ibiltzen ziren. Neska-mutilen janzkera.

17. Probak San Antonio jaietan

- **Erref:** BRZ-050/035
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:49:18. **Bukatu:** 00:51:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Inguruetako zer jaitara joaten ziren: Andikoako Asentzioak, Urdaixako jaiak, Garaikoak... San Antonio jaietan probak egoten ziren. Pedrojuan jatetxearen

aurrean probak (demak) jokatzen ziren errepidean. Kotxeren bat zetorreanean, itxaroteko esaten zioten. Non gehiago egiten ziren. Zerrategiko oholekin ixten zuten. Neskak ere joaten ziren, baina gutxiago.

18. Gerra sasoiko ibilerak

- **Erref:** BRZ-050/038
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:55:39. **Bukatu:** 00:58:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Gerra sasoiko ibilerak. Bi aldeetan ibili zela dio. Lehenengo Markinan ibili zen trintxerak egiten. Handik mendiz Lekeitioraino joan ziren. Durango bonbardatu zutenean, hegazkinak ikusi zituzten pasatzen eta kea ere bai. Batzokikoak ziren beraiei agintzen zietenak. "Asturianoek" edozein hiltzen zutela dio. Mojak zaintzera bidali zituzten komentura. Karteruenean jaten zuten eta gustura.

19. Berrizko Batzokia, gerra aurrean sortua

- **Erref:** BRZ-050/039
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:58:36. **Bukatu:** 01:01:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

EAJkoei "Bizkaitarrak" esaten zitzairen. Batzokia Errementariarenean zegoen. Gerra aurretik sortutakoa zen. Mutilek ezpata-dantza ikasten zuten Batzokian. Nortzuk ibiltzen ziren irakasle lanetan. Hitzaldiak ere entzuten zituzten. Urteko kuota. Bozketa.

20. Gerran trintxerak egiten; Arana Goiri batailoian

- **Erref:** BRZ-050/040
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:01:30. **Bukatu:** 01:04:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoiaren mojen komentua zaintzen egon ziren, Trintxerak egiten ere bai, Markinan eta Larrabetzun. Aitzurrarekin egiten zituzten. Bonbardaketa izan zen Markinan eta Ama birjina hondatu zuten. Iruzubietatik gora alde egin zuten eta biharamunean Lekeitiora iritsi ziren. Elizpean egon ziren pare bat egunean. Handik Bilborantz. Arana Goiri batailoian sartu ziren orduan. Leon Salaberria ermuarra zen batailoiko buru. Santander alderantz joan ziren gero.

21. Santanderren preso hartu zituzten

- **Erref:** BRZ-050/043
- **Iraupena:** 0:40:05. **Hasi:** 01:09:55. **Bukatu:** 01:50:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Nazionalak harrapatu zituzten Santanderren eta kamioietan Laredora eraman zituzten. Sekulako irainak botatzen zizkieten. Fusilatu egingo zituztela uste zuten. "Cara al sol" abesteko esan zieten, baina beraiek ez zekiten zer zen ere. Handik batzuk Bilbora eraman zituzten eta beste batzuk Santoñaako kartzelara.

22. Gerra zibilean preso hartu zituzteneko bizipenak

- **Erref:** BRZ-050/045
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 01:14:13. **Bukatu:** 01:17:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoian Soto-lruzen egon zeneko kontuak. Santoñaako kartzelatik Santander kapitalera eraman zituzten. Gosez irten ziren eta ogia, ardoa eta esne kondentsatua hartu zituzten. Zenbaitzuen aitak, tartean berea, oinez joan ziren mendirik mendi eurak bisitatzerara. Gerratean hiru urte egin zituen etxetik kanpo.

23. Nazionalen errepresioa kartzelan egon zirenean

- **Erref:** BRZ-050/046
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 01:17:23. **Bukatu:** 01:20:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra sasoian preso egon zireneko bizipenak. Italiarrak joan eta gero komandante batzuk etorri ziren. Kartzelatik ateratzen ziren guztiak fusilatu egin zituztela jakin zuten eta beldurrez egon ziren. Behin lagun bati komandantziara deitu zioten eta aurpegia apurtuta itzuli zen. Gernika eta Durango nork bonbardatu zituen galdetu zioten. Gero berari deitu zioten eta berak erdizka eman zituen erantzunak, kolperik ez jasotzearen.

24. Santanderretik Iruñera nazionalekin

- **Erref:** BRZ-050/047
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:20:27. **Bukatu:** 01:23:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Gerra sasoian preso egon zireneko bizipenak. Santanderretik sarjentu batekin Iruñera joan behar zirela esan zieten. Ogia, esne kondentsatua eta ura hartu zituzten. Ezagun bat ikusi zuten eta etxekoei euren berri emateko eskatu zioten. Iruñeko kuartel batera eraman zituzten. Castillo plazan falangistak eta karlistak. Militarren txapela. Neskak, "margaritak". Orduko bizipenak.

25. Franco Iruñean, frankista nafarrei harrera egiten

- **Erref:** BRZ-050/048
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:23:23. **Bukatu:** 01:25:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra zibileko kontuak. Nazionalak Iruñera eraman zituzten eta han militar jantzia eman zieten, desfileatu egin behar zutela eta. Besteak beste, Franco etorri zen nafarrei ("Los conquistadores del Norte", Lemoako frontean ibilitakoak) harrera egitera.

26. Castillo plazako ekitaldian hoteleko balkoia erori

- **Erref:** BRZ-050/050
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:25:26. **Bukatu:** 01:26:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Franco etorri zen Iruñera frankista nafarrei ("los conquistadores del norte") harrera egitera. Castillo plazan izan zen ekitaldia eta berak ere desfilean parte hartu zuen. Franco kioskoan. Jendez beteta ingurua. Hotel bateko balkoia erori egin zen, gainean emakumezko asko zegoenez, pisua hartu zuelako. Zintzilik geratu ziren neskak eta beraiek begira, ea zerbait ikusiko ote zuten.

27. Teruelen zauritu egin zuten; han zegoela amaitu zen gerra

- **Erref:** BRZ-050/051
- **Iraupena:** 0:07:09. **Hasi:** 01:26:37. **Bukatu:** 01:33:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Natura » Meteorologia
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Nazionalak Teruelera bidali zuten soldadu. Zauritu egin zuten bertan (La Muelan). Han zegoela bukatu zen gerra. Handik Valentziaraino oinez joan ziren. Terueleko bizipenak. Alfambran egon ziren. Gogor hartu zituzten, "rojos separatistas" zirela eta; mugimendu txikiena eginez gero, hil egingo zituztela esan zieten. Bilboko komandantea. Gauez zaintza egiten pasa zuten estutasuna. 1939ko urtarrilaren 10ean zero azpitik 38 gradu egin zituen.

28. Gerrako zauriaren ondorioz, jan ezinda

- **Erref:** BRZ-050/053
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 01:34:51. **Bukatu:** 01:37:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerran zauritu zutenean, Terueletik Zaragozara bidali zuten. "Banco Hispanoamericano" a ospitale bihurtuta zegoen. Ospitalean laguntzen zebilen neska batek gurasoei idatzi zien, ez zegoela larri zaurituta esateko. Handik Burgosera. Trenean mareatu egiten zen. Soldadu batek jatekoa eman zion, baina ez zen konturatu masaila apurtuta zuela. Operatu egin zuten gero. Nolakoak pasa zituen. Handik irtendakoan berriz frontera bidali zuten.

29. Forjako lana

- **Erref:** BRZ-050/061
- **Iraupena:** 0:05:13. **Hasi:** 01:42:16. **Bukatu:** 01:47:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak

Laburpena:

Forjan bertan egiten zituzten makinak. Burdina Labe Garaietatik ekartzen ziren trenean. Forjako lana. Durangaldeko forja bakarra zen, baina inguruetan bazeuden gehiago Zaldibarren, Ermuan, Eibarren... Lagun zituen beste forjariak.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com